

Badira hiru aste Sónar musika elektronikoko eta esperimentalaren jaialdiari pareleloki, Sónar+D kongresua ospatu zela Bartzelonan. Ez nuen hara joateko aukerarik izan, baina webguneari bistadizo azkar bat emanda sorkuntza, eraldaketa, jakintza eta ekonomia digitalari lotutako hamaika proiektu eta pertsonai interesgarri bildu zirela baieztatu dezake edonork. Sónar+D-arena [aurretik aipatuta daukagun hardware librearen herrikoitzearen](#) beste adibide bat da: orain arte periferikoak ziren teknologia eta pertsonaiak (adib., makerrak) pop kulturaren txertatzen ari direnaren erakusgarri. Harrigarria eta aipatzekoa da hardware librearen ekitaldian hartutako zentraltasuna.

Sónar+D ekitaldiaren berri Radio3-ko ["Fallo de Sistema"](#) irratsaioari esker jakin dut, ez alperrik, maiteminduta bainauka Santiago Bustamantek aurkeztutako asteroko ordubeteak: zientzia dibulgazioa, zientzia-fikzioa eta bideo-jokoen inguruko berri, iritzi eta gogoetak. Sónar+D-tik egin zuten [184. saioa](#) eta eduki mamitsuak jorratu zituzten, hemen ere, hardwarea oinarri:

- **Teatronika**: lau errobot aktore lanetan jartzeko antzerki lehiaketa. 4000 hitz arterako testu bat osatzera ausartzen?
- **Musik hack day**: 24 orduz hautaturiko 100 hackerrek aurkezten duten musika entzun, konposatu, interpretatu edo banatzeko modu berrien erakustaldia. Musikaren industria egiten ausartzen ez dena ikusgai eta, batez ere, entzungai.
- **Google Creative Lab**: erraldoi amerikarrak montatutako google estiloko ideia laborategia, idazleak, disenatzaileak, makerrak... guztiak gela berdinean sartzen dituzte maker mugimenduari errentabilitatea atera nahian.
- **littleBits**: oinarritzko blokeak erabiliz, lego bat balitz bezala, dena delako tramankulu elektronikoa muntatzeko proiektua (baita telefono mugikor bat ere!). Scratch edo Code.org softwareari dena hardware-erara ekarrita.
- **Arduino**: David Cuartielles Arduino proiektuaren fundatzaileetako bateri elkarrizketa non [azken hilabeteetako drama](#) kontatu barik, Intelekin dituzten proiektuak azaldu eta, ez dakit nik, momenturen baten "Hiriko" proiektua goratzera ere iristen ote den (diru xahutzeak ahaztuta edo hauen ezjakin)...

Ezkontza interesgarria musika eta hardware-arena. Antzerako zerbait egin ohi dute urtero [Kabi@](#)-koek Durangoko liburu azokan kultura digitala zabaltzeko ekitaldiekin. Teknologia kulturaren duen inpaktua ez da banaketa kanal berrietara mugatzen, sakonagoa da. Sorkuntza modu berriak datoz, eta, batez ere, sortzaile-kontsumitzaile bikoteko rolen iraultzea. Eta abangoardian kulturarekin gertatzen dena, bestelako jardueretan (adib., industrian) etorriko denaren aurrerapena izan daiteke bakarrik.

## Zabaldu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on WhatsApp \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)
- [Click to email this to a friend \(Opens in new window\)](#)